



Izan zaitez ALEAkide
www.alea.eus/aleakideak

ARABAN BARRENA
BURUA GALTZEKO MODUKO IBILBIDEAK

JAİETAN ERE LIBRE İZAN NONAHI

celebra, actúa, responde



JAİETAN INFORMAZIO GUNEA

ABUZTUAK 4-9

17:00 - 23:00

Posta - Independentzia

INFORMAZIOA ETA ARRETA 24 ORDUZ

UDALTZAINGOA | 092

Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua
945 13 44 44

Piktogramen bidez larrialdiak aktibatzeke zerbitzua
App-SOSDeiak 112



ALEA 203

2019-07-26 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

PHOT.OK

Aurkibidea

- 4 Bost ibilbide aniztasunaz gozatzeko.
- 8 Natura eta ondarea mugan.
- 12 Herrerako alde banatan.
- 16 Ahizpen artean mundu bat.
- 20 Gorbeialdea alderik alde.
- 24 Lautadak Mendialdeari bidea.
- 28 Araba, motor gainean.
- 30 Agenda.

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 3.500 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua


Bost ibilbide, aniztasunaz gozatzeko

Kotxez edo bizikletaz Araban galtzeko proposamena duzu esku artean, Gasteizko nagusigoa alde batera utzita. Ezohiko bost ibilbidetan herri txikiek eta eskualde bakartuek bat egiten dute herri ospetsuekin eta paisaia ezagunekin. Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**.

Arabako aniztasunera hurbildu nahi duen orok gozatuko du argitalpen honetan bildu ditugun ibilbideekin. Uda honetan edo urteko beste edozein sasotan –kontuz neguan gure lurraldeko izotzaldiekin eta elurrarekin!– lasaitasunez egiteko aproposak dira guztiak. Arabako zortzi kuadrilletan barrena ibiltzeko proposamena da, baina ez, ordea, tokirik ezagunenak bisitatzeko. Herri ñimiñoak, bakartuak, ia hustuak, monumentu adierazgarriak ez dituztenak, naturak menperatuak... horiek ere ibilbide hauen parte dira: Añes, Axarte, Armentia... Horien aurrean askoz ezagunagoak diren beste batzuk ere aurkituko ditu bidaiariak: Artziniega, Samaniego, Eltziego, Marieta.

Gainera, toki batetik bestera iristeko bide arruntak eta ohiko errepideak erabili ordez, bigarren mailako eta kasu batzuetan hirugarren mailako errepideak ere erabili beharko ditu bidaiariak, kotxez edo bizikletaz. Mundutik aparte geratzen diren errepide galduak dira, sarritan estuak eta bihurgunetsuak, eta tokikoek bakarrik erabiltzen eta ezagutzen dituztenak; beraz, adi egon behar da traktoreekin, animaliekin..., eta herri txikien lasaitasuna eta ingurua errespetatu.

Bidean asfaltoa alde batera uzteko beharra sentitzen baldin baduzue, eta oinez ibilbideak egin nahi izanez gero, hemen jasotako edozein tokitan aurkituko duzue txango politikak egiteko aukera: Añesetik Artziniegara Sopenako bidetik, Oletatik Santikurutz eta Orixol mendietara, Kontrastatik Lokiz mendilerroan dagoen Okomendiara...



						
● Karkamu	➡ 40 min.	2 ordu 20 min.	● Añes	➡ 20 min.	50 min.	● Artziniega
● Urizaharra	➡ 20 min.	1 ordu 30 min.	● Samaniego	➡ 10 min.	30 min.	● Eltziego
● Armentia	➡ 25 min.	1 ordu 30 min.	● Axarte	➡ 15 min.	40 min.	● Armentia
● Giliema	➡ 35 min.	2 ordu	● Oleta	➡ 15 min.	1 ordu	● Ibarra
● Marieta	➡ 20 min.	1 ordu	● Galarreta	➡ 30 min.	1 ordu 35 min.	● Kontrasta

ZIGOITIA, UZTAILAK 26, 27, 28

EGUZKI JAIA



Kontrastez beteriko lurra da Araba, bai ingurumenaren aldetik zein eskualde desberdinen izaeraren aldetik, eta horren lekuko dira honako orrialde hauek. Izan ere, nahiko txikia da herrialdea –3.042 kilometro koadro ditu–, eta eskualde biogeografiko atlantikoaren eta mediterraneoaren artean kokatuta dago. Kilometro gutxitan igarotzen da Kadagua ibaiko 40 metroko altueratik Gorbeia mendiko 1.482 metroko altuerara; Laudioko eta Aramaioko larre berdeetatik Ebro ibaiak bustitzen dituen Arabako Errioxako lur lakarretara; Entzia menditik Valderejo eta Salbada mendietara; Gasteizko bizitasunetik Trebiñuko edo Gaubeako apaltasunera. Zerbaitegatik da Araba Euskal Autonomia Erkidegoan dibertsitate handiena duen herrialdea.

Bost ibilbide dira guztira, Araban barrena. Burgos eta Bizkaia ere ukitzen dituzte eta Nafarroatik ere oso gertu ibiltzen dira; asmo nagusia eskualde batetik bestera igarotzeko orduan herrialdeko paisaiaren berezitasunak jasotzea da. Modu horretan, lehenengoan Añana eta Aiara artean doa ibilbidea: Gaubeako bihotzetik atera eta mendebalde urruneko lurak zeharkatuz, Artziniegara iristeko. Bigarrenean, berriz, Arabako Errioxara da txangoa, Urizaharretik abiatuz, eta Herrerako gailurretik ikusten diren bista ederrak gozatzeko geldiunea eginez. Hirugarren ibilbideak Arabako Armentia biak lotzen ditu, bidai txundigarri batean. Laugarrenak Gorbeialdea puntatik puntara zeharkatzen du, eta azkenak Lautadako eta Mendialdeko muturreko lurak lotzen ditu, Opakuan barna. ■■■

AZALA, landa ostatua

ixiltasuna entzun - egurra ikutu - artea usaindu



665 705 136
WWW.AZALA.ES



PREST...



ADI...



ORAIN !

EUSKADI, MUTUR BATETIK BESTERA KURRITZEKO LURRALDEA

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MENDIARITZA
ETA KONTABILIDAD SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Natura eta ondarea mugan

Gaubea eta Aiaraldea lotzeko biderik ohikoena da Urduñako mendatea igotzea; badago, ordea, Anguloko haitza zeharkatzeko aukera, eta Burgosko Losako haran zabala bisitatu ostean, Añesen sartzea.



Añanatik Aiaraldera pasatzeko Anguloko mendatea zeharkatuz gero, bista ederrak gozatu daitezke. PHOT.OK

E.U. KARKAMU

Karkamu eta Añes lotzen dituen gure ibilbide luzearen lehenengo etapan Araba mendebaldearen eta Burgos iparraldearen arteko muga ezagutzeko aukera izango dugu, eta muga horretan aurkituko ditugu herri ezkutu ugari, eta larre, mendi zein ur-jauzi zoragarri asko.

Ohikoena eta logikoena Aiaraldera joan nahi izanez gero, Karkamutik Bilboko errepidea hartu eta Urduñako mendatea igotzea litzateke,

hogei bat minutuan Tertangara helduko baikara.

Oraingo honetan, ordea, Karkamutik Gaubeako hiriburura abiatuko gara, Uribarri Gaubeara, Angostoko haitzartea zeharkatuz, eta Karanka, Villanañe, Gurendes, Corro eta Tobillas herriak igarota. Horietan guztietan ondare arkeologiko eta artistiko aberatsa gorde da, eta Euskal Herriko eremutarren haitzulo artifizialak ere bisitatzeko aukera dago.

Arabako Boveda herria atzean utzi ondoren, Burgosko Losa

haranean sartuko gara, Anguloko mendatera bidean. Hantxe topatuko ditugu San Pantaleon de Losa –Gurutzaden garaian bertan kokatzen zuten Graal Santua–, Rio de Losa, Villaluenga, Cozuela... Herri txikiak deskubritu nahi izanez gero, pagotxa da ingurune hori. Gainera, Anguloko mendatea abiapuntu ona da mendizaleentzat. Mendatea jaitsi eta Añesen izango gara; bertatik Artziniegara iristeko Aiaraldeko herririk ezezagunenak bisitatzeko aukera dugu.

Karkamu



40 km

A-3318

BU-556

BU-552

BU-550

Añes



12,5 km

A-624

Artziniega



> Karkamu

Gaubean dagoen euskal toponimiaren arrastoen adibide bat da Karkamu, Euskaltzaindiak 2012. urtean herriaren izendapenaren inguruan argitaratu zuen irizpenak islatzen duen moduan: "Karkamu da zonalde honetan euskaraz hitz egiten zen garaian herriak erabiltzen zuen forma, zalantzarik gabe; amaieran 'o' letra duen Carcamo forma modernoak gaztelaniako arauak sortutakoa da, amaierako 'u' letra 'o' bilakatuz. Kasu bera da ondoko Arcamo mendatearena; Lautadan Arkamu bezala jasota dago 1799. urtera arte".

Herri txikia Erriberagoitia eta Gaubea lotzen dituen errepidearen alde banatan kokatuta dago, eta Neolito arotik izan da gizakiaren kokalekua. Horren lekuko da Las Calaveras izeneko hilobiko koba; 1960an deskubritu zuen Armando Llanosek eta Jose Antonio Agorretak, besteak beste, osaturiko arkeologoen talde batek, eta bertan hiru emakumeren burezurrak aurkitu zituzten. Karkamu eta Luna herriak lotzen dituen mendiko bide batean dago koba, La Llanako putzuaren inguruan.

Denboran aurrera eginez, Erdi Aroko lekukotasunak ere baditu Karkamuk, eta, hain zuzen ere, ospetsuena da errepidearen ezkerretara, herriaren erdian dagoen San Joan ermita.

ERRIBERAGOITIA ETA
GAUBEA ARTEKO HERRIA
NEOLITO AROTIK IZAN DA
GIZAKIAREN BIZILEKU



E.U.



E.U.

Jatorria XI. mendeko bigarren erdian du, eta arabar goiz erromanikoari dagokio. Ermitaren harrizko hormetan 1050 data aurkitu zen; gaur egun ermita barruan dago zintzilik apaingarri gisa. Arabako Foru Aldundiak 1980-1983an zaharberritu zuen eliza. Teilatu hegaleko harburuetan giza eta animalia irudiak, antropomorfoak, bolak eta bestelakoak ikusten dira. Ermita barruan estilo gotikoko Andra Mariren taila margotu bat dago, baita San Joanen taila bat ere, herri estiloan egina, eta gurutze gotiko bat.

Despopulazioak larriki jo zuen Karkamu, Gaubea

haraneko gainerako beste herriak bezala. XX. mende hasieran eskola bat zegoen herrian, baina 1943. urtean soilik bederatzi neska-mutil joaten ziren herriko eskolara.

Kuadrilla: Añana.

Udalerria: Gaubea.

Biztanleak: 29 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Ametzagaina parkeko ardiak kentzea erabaki zuen Donostiako Udalak 2015ean, Karkamun bizi dira orain.

> Añes



Añes ingurune aproposa da mendi txangoak egiteko; izan ere Artziniegara oinez joan daiteke bertatik. PHOT.OK

Ziurrenik Aiarako lehen eremu populatua Añes inguruan egon zen. Hala adierazten dute bederen Goiko Landetako eremuan aurkitu zituzten historiaurreko aztarna ugariak. Herriko plazan aurkituko dugun argibide- taulan jasotzen denez, gerorago, X. mendean, Euskal Herriko Aiara eta Burgosko Mena haranen artean lotura egiteko eraiki zuten Sopenña Bidearen ondorioz sortu zen egungo herria, eta beraz, bide historiko horri zor dio bere sorrera.

XVIII. mendean, bidearen garrantzia zela eta, Errege Bidea deitu zuten Añes zeharkatzen duen hori. Horrela deitzen zieten bide-azpiegitura oinarritzkoan ezinbestekoak eta nagusiak ziren bideei. Erregeak horien gainean emakida bat egiten zuen, haien indarraldia bermatzeko. Eta *Sopenña* deitura *sopenñatar* herriei edo, "haitz azpian" kokatutako

herriei erreferentzia egiteko sortu zen; Gorobel haitzaren azpian ziren herriei, kasu honetan.

Alta, Kexaan eta Artziniegan ospatzen ziren azoka ospetsuetara mandazainak eta merkatariaik eramateko beste bide batzuk garrantzia hartzen hasi ziren, Aiarako Jauntxoaren babesarekin. Hala, XII. eta XIV. mendeetan, Urduña hiria jaiotzearekin batera, Bilbora joaten zen bidea indartu egin zen, eta Sopenñako Errege Bidearen gainbehera etorri zen.

Garai horretan egiten hasi ziren Goldetxoko bidea, Txarlazotik Urduñarantz jaisten dena, eta egungo Urduñako portuko errepidea

AIARAKO LEHEN EREMU
POPULATUA, ZIURRENIK,
AÑES INGURUAN
KOKATUTA EGON ZEN

ere; ireki zituztenean, Sopenñako Erregearen Bidea abandonatu zuten mandazainek. Bidearen gerizpean sortutako herriek, tartean Añesek, merkataritza alorrean garrantzia galdu zuten, eta bidea bera ere ia mapatik desagertu zen; baina, 2011. urtean, Felix Muguruza ikertzailearen ekimenari esker, Arabako Foru Aldundiak 66 kilometroko bidea berreskuratzea eta seinaleztatzea erabaki zuen, Urduña eta Artziniega lotuz.

Kuadrilla: Aiaraldea.

Udalerria: Aiara.

Biztanleak: 19 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Saratxaga familiak Añeseko errota eraberritu du; urtero, jai giroan, errota martxan jartzen dute, irina ehotzeko.

> Artziniega

Arabako ipar-mendebaldeko muturrean dago Artziniega, Bizkaiko eta Burgosko mugetan. Hiribildua izen bereko errekaaren eskuinaldean dago kokatuta, 210 metroko altueran. Historia idatzia 1272. urtean abiatu zen, Gaztelako errege Alfonso X. Jakitunak hiri-gutuna eman zionean. Ordutik, lurzoruetarako gaietarako Bizkaiko foruaren arabera gobernatu zuten bitartean, ekonomia nahiz zergekin lotutako arazoetarako, berriz, Gasteizko forua erabili zuten.

1370. urtean Don Tello hil arte, Artziniega Bizkaikoa zen; baina horren heriotzarekin Enrike II. anaia geratu zen lurren jabe, eta horrek, aldi berean, Pero Lopez de Aiala kantzilerrari eman zion urtebete beranduago. Bizkaikoa izan zen bitartean, jauntxoak izendatzen zituen alkateak; ondoren, herriak berak aukeratu zituen batzar irekian.

Erdi Aroan, asko izan ziren lurraldeak eskuratzeko bandoek egindako gudak; merkataritzarako toki estrategiko batean zegoen,

itsaso eta goi-lautadaren artean; eta hortaz, leinu aberatsak eta garrantzitsuak finkatu ziren bertan.

Erdi Aroa amaitzean, hedapen-aldia jasan zuen eta harresitik kanpoko guneak okupatu ziren. Gainera, Ameriketatik ekarritako aberastasunak ere eragina izan zuen garapenean; esaterako, 1590ean Pedro Saenz de Ubaldi batxilerrak ospitalea egin zuen parrokia aurrean. XVIII. eta XIX. mendeetan, eskualdeko merkataritza gune nagusia izan zen hiribildua. Bestalde, azken guda karlistan, hainbat bataila

jasan zituen, eta ondorioz, artxiboa eta erregistro zibila erre ziren, garrantzi handiko agiriak galduz.

1995tik Monumentu Maltza Historiko-artistikoa da Artziniegako herria. Datu bat: 46 armarritik gora daude hiriguneko hainbat estilotako etxe, jauregi eta dorretan banatuta. Guzti horien artean, aipamen berezia merezi dute Ortiz de Molinillo Velasco dorreak, Goiko plazak eta udaletxe zaharrak, Bengoa dorreak, Aranguren eta La Mora jauregiek, elizak edota udaletxe berriak eta frontoiak.



PHOT.OK



PHOT.OK

Kuadrilla: Aiaraldea.

Udalerrria: Artziniega.

Biztanleak: 1.803 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: 1674. urtean, Arabako Batzar Nagusietan Artziniegako prokuradorea arbuiatu zuten, gaztelaniaz ez zekielako.

Herrerako alde banatan

Toloñoko mendilerroak banatzen ditu Mendialdea eta Arabako Errioxa, eta Herrerako mendatea alde batetik bestera igarotzea Arabako paisaiaren aberastasunaz eta aniztasunaz ohartzeko modu egokia izan daiteke.



Arabako Errioxa eta Mendialdea banatzen ditu Toloñoko mendilerroak. PHOT.OK

E.U. URIZAHARRA

Urizaharra da Arabako Errioxan sartzeko aukeratu daitekeen atari aproposena, herri harresiduna izateaz gainera, ingurune ezin ederrean kokatuta baitago. Arabako Errioxa eta Mendialdea banatzen dituen Herrerako mendatearen azpian dago herria, eta mendi horretan aspaldi gaztelu bat egon zen, 1.222 metro garaiko tontor baten gainean, San Leon mendian. Toloño mendilerroaren iparraldea edo

Urizaharra, eta hari loturik zeuden herriak, behin betiko Gaztelaren esku geratu zirenetik, muga zaintzeaz aparte, beste egiteko bat ere izan zuen gazteluak: Errioxa aldearen eta iparraldearen arteko lotura lanak egitea, San Vicenteko, Toloñoko eta Buradongo gazteluekin batera. Samaniegora iristeko Herrerako mendatea hartuko dugunez, gaztelu zaharraren aztarnak ere ikustera ausartu gaitezke. Herrera mendatean bertan hasten da igotzeko pista, Errioxara bidean goazela

eskuinetara; Herrera igarobidearen mendebaldean, 120 bat metro gorago. 15 bat minutu behar dira goraino igotzeko. Azkeneko zatia porlanezko eskaileretan gora: 257 eskailera-maila.

Harreman handia izan dute historian zehar Mendialdeko eta Arabako Errioxako herritarrek, izan ere ohikoa zen, esate baterako, Mendialdeko emakumeak –Pipaongoak eta Lagrangoak– Errioxara ikatza saltzera joatea, eta bueltan ardo eta jakiak etxera eramaten zituzten.

Urizaharra



16 km

A-2124 N-232a

Samaniego



10 km

A-3214

Eltziego



> Urizaharra

Urizarra izeneko herri hustuaren jatorrizko kokalekua hartzen du Toloño mendizerraren ertzean dagoen Urizaharrak. Mendeetan, gatazka asko jasandako herria da, guztiek konkistatu nahi zutelako, bai Nafarroako erregeek eta baita Gaztelako erregeek ere; eta hori dela eta, bi erreinu horien esku egon zen denbora luzez.

Historialari batzuen arabera, baina, lehenago hasi zen bertako historia; zehazki, VIII. mendean. 1200. urtean, Gaztelako Alfonso erregeak Foruak eman zizkion, eta XIII. mendean ere herria babesteko harresiak altxatu zituzten; *Peñacerrada-Urizaharra* izena jarri zioten orduan.

1377 urteko azaroaren 15ean, Gaztelako Enrique II.ak bere gozogile nagusi eta Salinasko lehen konde Diego Gomez Sarmientosi eman zion, eta, ondoren Hajar Dukeen heredatzaileen esku geratu zen. Lehen gerra karlistan bataila ugari egon ziren, eta, Erdi Aroko hiribildua nahiko hondatuta gertatu bazen ere, oraindik ere aberatsa da bertako ondarea; 1996an erregistratu zen Kultura Ondare moduan, Monumentu Multzoaren kategorian.

MUNDUKO ANBAR
AZTARNATEGI
GARRANTZITSUENETAKO
BAT DAGO BERTAN

Egun, bi dira hirigune historikoa inguratzen dituzten elementu aipagarrienak: harresia bera eta hegoaldeko ataria, alboetan bi dorre handi dituen; antzinako harresitik ondoen kontserbatzen den harresi zaharra da.

Horrez gainera, nabarmentzekoak dira herriko plazan dauden XVI. mendeko udaletxe zaharra, apaizetxea eta Hajarreko dukearen etxea; XVII. mende amaierakoa. Etorkizunean Anbarraren Interpretazio Zentroa eraikitzeko asmoa dute eraikin horretan. Aipamen berezia behar du, aldi berean, Jasokundeko Andre Mariaren elizak: estilo erromanikoko tenplu honek XVI. mendean eraikitako dorre barrokoa du, eta baita erromanikotik gotikorako trantsizio estiloko ataria ere.

Errota zahar bat ere badu Urizaharrak, 1778. urtean eraikitakoa, eta orain dela gutxi barrutik eradaltu dutena landetxe bihurtzeko. Beheko solairuan du errota eraikinak eta baita artisau okindegia ere. Etxe aurretik bertatik pasatzen den ur iturburu batek mugitzen du errota.

Kuadrilla: Mendialdea.

Udalerria: Urizaharra.

Biztanleak: 122 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Bi aztarnategi ditu: Yurdinaskoa, bata; eta anbar aztarnategia, bestea. Munduko garrantzitsuenetako bat da azken hau.



IREKIA/MIKEL ARRAZOLA

> Samaniego



PHOT.OK

Samaniego ezagutzeko modurik egokiena, noski, herria bisitatzea da, eta bertako ohiturak islatzen dituzten festetan murgiltzea izan daiteke aukera polit bat. Ikusgarrien eta berezien artean daude Mañak. Abenduaren 7an izaten da Samaniegon Mañen eguna; aurreko asteetan herriko gazteak egurra batzen doaz su handi bat prestatzeko. Bien bitartean, nagusiek belatxeta mozten dute, eta sortaka lotzen dute, mañak deiturikoak eginez. Egunean bertan umeez beren sortak pizten dituzte, eta herritik barrena doaz belatxeta usain gozoa utzita. Ohiturak dioenez, usain horrek izpiritu txarrak usatzen ditu. Umeez egindako ibilbidea su handian amaitzen da; bertan elkartzen dira bizilagun guztiak txorizoak, patatak eta baratxuriak sutan egiteko, eta Arabako Errioxako ardoa edateko.

Festa ezagunenak, berriz, Haraneko Ama Birjinarenak

dira, irailaren 7tik 11ra bitartean. Udaletxeko plazan botatzen den txupinazoarekin batera, kartoizko asto bat igotzen da elizaren dorreraino, eta bertan egongo da zintzilikatuta jaiak amaitu arte. Astoaren figura kondaira batean jasotzen da. Antza, elizaren dorrean melgas izeneko belar txar ugari hazten ziren, eta herritar batzuei okurritu omen zitzaien melgak jateko asto bat igotzea. Igotzerakoan, astoa sokarekin ito zuten.

Bestela, mahastien zainketan eta laborantzaz aritzen den herri txiki bat da Samaniego, ardo bikainak egiten dituen. Herriaren historia eta ondare aberatsa ere ardoari lotuta daude, eta herriko kaleetan

HERRIKO JAIETAN,
KARTOIZKO ASTO BAT
ZINTZILIKATZEN DUTE
ELIZAREN DORRERA

eraikitako jauregi ederrek ondo islatzen dute mahastigintzak herriaren garapenean izan duen garrantzia.

Erromatarrek ezarri zuten mahastigintza egungo Arabako Errioxan, eta XV. mendearen amaieran eman zen mahastien zabalkunde inportanteena, orduko labore bakarra bilakatzeraino. Alta, 1902. urtean, filoxera izurrite handi batek Arabako Errioxako mahastien %96 akabatu zuen. Gaur egun, 538,44 hektarea mahasti lantzen dituzte Samaniegoko hamabi upategik.

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerria: Samaniego.

Biztanleak: 237 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Kondaira batek dionez, Jasokundearen Elizaren gotorlekua "mairuek" eraiki zuten, eta inoiz aurkitu gabeko altxorra dago bertan.

> Eltziego

Ezagutu beharreko toki da ardogintza eta mahasgintza maite duten guztientzat. Egun, Eltziegok 275 mahasti eta ardogintza ustiategi ditu; eta 1.400 hektarea inguru biltzen ditu; horietatik 1.038 udalerrian bertan daude eta gainerakoak muga egiten duten herrietan.

Herriko hazkunde ekonomikoarekin batera upategi eta marka berriak kokatu dira, produkzioa handitzeko inbertsio itzelak egin dira urte hauetan, eta izen handiko arkitektoek eginiko eraikinak eskualdearen ezaugarri eta turismoaren deigarri bihurtu dira. Horren lekuko nagusia da Marques de Riscal upategiarentzat Frank

ARDOA ETA PRODUKTU
HORRI LOTUTAKO
JARDUERAK DIRA NAGUSI
ELTZIEGON

Gehry arkitekto kanadarrak 2006. urtean diseinatu zuen titaniozko eraikina. Ikusgarria da diseinu aldetik, eta bisita gidatuak egiten dituzte.

Arkitekto ospetsuaren lanaz gainera, artea maite duen orok ere badu zer ikusi Eltziegon, San Andres parrokia eta XVII. mendeko Plazako Andre Mariaren ermita, esate baterako. Historia handiko herria da, eta horren erakusgarri dira ongi egituratutako kaleetan ageri diren armarridun eraikin eta jauregi dotoreak.

Eltziegora irailean joatea erabakiz gero, Plazako Andre Mariaren jaiez goza dezakegu.



PHOT.OK



PHOT.OK

Herriko festarik garrantzitsuenak dira eta irailaren 8an ospatzen dituzte. Giro paregabea, zalaparta eta musika izaten dira nagusi egun horretan. Gainera, mende luzez herritarrek ongi gordetako dantzak ikus ditzakegu, gaita-jotzaileen eta danbolinaren doinuez gozatzen dugun bitartean. Bost dantza egiten dituzte: kalejira, dantza, lau kale, zuhaitza eta jota.

Gaur egun gaztelania nagusi den arren, Eltziegoko euskara galtzea nonbait IX. eta XVI. mendeen artean kokatzen da. XX. mendearen bukaera eta

XXI. mendearen hasieran euskara berreskuratzeko gertatutako prozesuaren ondorioz, 2011. urterako Eltziegoko populazioaren %18 elebiduna zen.

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerrria: Eltziego.

Biztanleak: 1.059 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Nafarroako Erresumako parte izan zen Eltziego 1461. urtera arte, ondoren Gaztelakoa. 1583an banatu zen Guardiatik.

Ahizpen artean mundu bat

Arabako bi Armentiak lotzen dituen ibilbide nagusitik kilometro gutxi desbideratuz gero, paraje ezkutua ezagutuko ditugu, Trebiñuko konderriaren bihotzean; hiriaren eta herriaren arteko aldeaz ohartuko gara.



Errepide estu batetik hurbil gaitezke Axartera, Trebiñuko alderik ezkutuneak ezagutu nahi izanez gero. E.U.

E.U. ARMENTIA

Hamazortzi kilometroko distantziak eta mundu oso batek banatzen ditu Arabako bi Armentiak, Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen Armentia aberatsa eta Trebiñuko Konderrian kokatuta dagoen Armentia bakartua. Bien arteko bidean daude, gainera, konderriko bide eta herri galduak, tartean Axarte, harrizko herri hustua. Hiriburuaren ondoan hazitako Armentia inguruek merezi duten bisitaldiaren ostean

abiatuko gara Trebiñurantz, Gasteizko mendatetik; Uzkiano herrira iritsi baino lehen, Imiruri herrira bidea hartu beharko dugu, eta bertatik bide estu asfaltatu batetik hurbildu gaitezke Axartera. Kontuan izan betiere traktoreek eta nekazarien ibilgailuek lehentasuna dutela, eta arretaz gidatu beharra dagoela ez molestatzeko. Imiruritik ateratzen da, baita ere, Otxatera joateko bidexka, baina bertara hurbildu nahi izanez gero, oinez egin beharko dugu bidea.

Axartek, egun, biztanle bakarra du erroldan, eta eraikin gehienak –eliza tartean– erortzeko zorian daude. Bertara joateko bideak, ordea, Araba galdua deskubritzeko aukera ematen digu, paisaiaren lasaitasunaz eta bakardadeaz gozatzearekin batera.

Ondoren, Axartetik Imirurira itzuliko gara, eta, behin errepide nagusian, Armentia Bontara bidea hartuko dugu. Bertako jatetxean atsedena egin daiteke, eta ondoren Urizaharrera doan bidetik iritsiko gara Armentia.

Armentia (Gasteiz)



21 km

A-2124

BU-750

BU-V7452

Axarte



10 km

BU-750

Armentia (Trebiño)



> Armentia (Gasteiz)

Gasteiztik hiru kilometrora dago Armentia, Donemiliaga Kukullako kartularioren arabera: *Armentei*. Kartulario berean, 1050. urteko dokumentu batean *Armenti* aipatzen da. Mende bereko dokumentuetan, berriz, *Armendehi* eta *Armentegui* izenekin jasotzen dute. Geroago, 1135eko eskuizkribu batean, jada *Armentia* jasotzen da, eta XIII. mendetik aurrera izen horri eutsiko dio herriak.

Astorga eta Bordele arteko bide erromatarraren itzalpean herrixka bat sortu zuten bertan, eta ingurune hori izango da, baita ere, Arabako apezpikutza boteretsuaren egoitza IX. mendetik XI. mendera arte.

Mendez mende iraun zuen herriak, eta XX. mendearen 50. hamarkadaren hasieran aldaketa inportante bat izan zen Armentian, garaiko hogei

NEKAZARITZA HERRIA
IZATETIK, ABERATSEN
GOTORLEKUA IZATERA
IGARO DA ARMENTIA

bizilagunen nekazaritza-herrian eraiki baitzuten auzo berri bat, hiriko lantegietara lanera joan zirenak jasotzeko. "Etxe hotzak" deitu zieten gasteiztarrek langileak jasotzeko Armentian eraiki zituzten etxe merkeei. Martin Ballesterro gobernadore zibil falangistak eta Eugenio Arraiza arkitekto karlistak sustatu zuten obra, eta frankismoak

"bizitza eredu osasuntsua eta alaia" lortzeko proiektua bezala zabaldu zuen.

Bigarren aldaketa garrantzitsua 1970. urteko hamarkadan bizi izan zuen Armentia herriak, txaletak eraikitzen hasi baitziren bere lurretan, eta 80. hamarkadan inguratu zuten antzinako herria Uleta gainetik, eta zabaldu zen.



PHOT. OK

Kuadrilla: Gasteiz.

Udalerrria: Gasteiz.

Biztanleak: 254 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Hamazortzi kilometro inguruko distantzia dago Gasteizko Armentia eta Trebiñuko Armentia herrien artean.

> Axarte



E.UGARTE

Ezaguna da Axarte XIII. eta XIV. mendeen artean bertako harrobietatik Gasteizko Santa Maria katedrala eraikitzeko harriak atera zituztelako, baina egun herria ia abandonaturik dago. Oso preziatuak ziren garai hartan Axarteko lumakelak: "Mailuarekin harria apurtzen denean, arroka garbia agertzen da eta horretan ikus daiteke mineral berezia; paleozenoko kaliza bat da lumakela, harri zuria edo harri argi arabarra ere esaten zaio". Hala, Axarteko harria erabili dute Espainia aldeko hainbat tenplutan; hala nola, Santo Domingo de la Calzadako katedrala eraikitzeko, Carrion de los Condesko Done Jakue elizan edo Avilako santuen sarkofagoan, besteak beste.

Santa Maria katedralaren Fundazioak Axarte eta Gasteiz arteko "Harriaren Bidea" berreskuratu zuen orain dela urte batzuk; katedralaren

interes historiko eta artistikoa hurbileko paisaiako osagaiekin lotzeko asmoa zuen, eta Trebiñuko harriak Gasteizko muinora eramateko erabili diren ibilbide historikoen berri emateko baliatu du urtero antolatzen dituen txangoak.

Izan ere, Santa Maria katedralaren eraikuntzan 4.992 tona harri garraiatzeko erabili zuten bidea. Horren berri jaso du Luis Martinez Torres EHuko geologoak *La ruta de la piedra* liburuan. Torresen esanetan, 10.700 gurdi behar izan zituzten katedralera harriak batetik bestera eramateko. Idi-pare bakoitzak Axarteko harrobitik ateratako 460 kilo harri garraiatzen zituen.

UDALERRIKO HERRIRIK
GARAIENTA DA, ETA GAUR
EGUN ETXE BAKAR BATEAN
DA BIZILAGUNIK

Gotikoaren amaieran utzi zuten Trebiñuko harria ustiatzen, ia agorturik zegoelako harrobia, eta gainera oso garestia omen zelako. Hamabost kilometroko distantzia dago Gasteiz eta Axarte artean, baina oinez bost orduko txangoan erraz zeharkatu daitekeen bidea da. Ganaduzaleek ibilbide hau ere zeharkatzen zuten larre batetik bestera animaliak eraman behar zituztenean, eta salgaiak Gasteizen eta Arabako Errioxa artean garraiatzeko.

Kuadrilla: Trebiñu.

Udalerria: Trebiñu.

Biztanleak: 1 (2018ko INEren datuen arabera).

Bitxikeria: Kondaira zahar baten arabera, *Estemeño* ezizena zuen bidelapur bat bizi zen Axarteko koba batean, aberatsei lapurtzen ziena herriko behartsuei ematen zien.

> Armentia (Trebiñu)

Axarte bezala, Armentiak, Aranak, eta Torrek Iberiar Penintsulan ospe handia izan zuen Trebiñuko errotarren harrobiaren ustiaketa partekatu dute, mende luzez. Harrobi horretatik ateratzen zuten garia ehotzeko "harri zuria", oso preziatua.

Gaur egun, ordea, Trebiñuko beste hainbat herritan bezala, nekazariak eta udatiarrek partekatzen dute herriko eguneroko jarduna. Herrian eraikin txukunak aurkituko ditugu eta bista ederrak, baina agerian da, baita ere, hainbat bazterretako utzikeria, XVI. mendeko Jasokundearen eliza erortzeaz baitago.

Antzinean bi ibilbide nagusi gurutzatzen ziren Ihuda ibaiaren alboan, gaur egungo Armentia Bentak herriaren parean hain zuzen ere. Batak Bordele-Astorga galtzada eta Kanpezuko bailara lotzen zituen, ibaiaren ibilguan zehar; besteak, berriz, Gasteizko mendatetik egiten zuen, Herrerako mendatea zeharkatu eta Arabako Errioxara iristeko ibilbidea.

XIX. MENDEAN, "ZUMARDI ZORAGARRIZ"
INGURATUTAKO HIRU BENTA ZEUDEN ARMENTIAN

XVIII. mendearen amaieran, Gasteiz eta Herrera artekoa errege-bidea bihurtu zen, eta hain zuzen garai horretan erabaki zuten Armentiatik behera *Las Ventas* auzoa sortzea, bideak ibaia zeharkatu eta ibilbide zaharrarekin bat egiten zuen lekuan. Bada, horrela, XIX. mendearen hasieran, Armentian "elkarren ondoan kokatutako eta zumardi zoragarriaz inguratutako hiru benta" zeudela aipatzen zen. Bentok ostatua eta janaria eskaintzen zizkieten bide horiek zeharkatzen zituzten bidaiariei.

Lehen Karlistaldian, Zumalakarregi jenerala Armentia Bentan kanpatu zen, eta bertatik hasi zuen Trebiñuko gazteluaren kontrako erasoa. Irabazi eta gero, gaztelua dinamitatzea erabaki zuen jeneral karlistak.

1970. urtean Trebiñuko nekazari talde batek Armentia Nekazaritza Kooperatiba sortu zuen, eta Armentian kokatu zituzten pabiloiak. Gainera, 2012. urtean kooperatibak gasolindegia bat zabaltzea erabaki zuen, Armentia Bentak auzoan, kooperatibistei eta gidariei zerbitzua emateko.

Kuadrilla: Armentia.

Udalerria: Trebiñu.

Biztanleak: 139 (2018ko INEren datuen arabera).

Bitxikeria: 1987ko urtarilaren 20an, Armentia Bentako jatetxean, PSOE, EE eta EAren arteko negoziazioa hautsi zen, eta *Txiki* Benegasen ordezkari izan zen lehendakari.



E.UGARTE

Gorbeialdea alderik alde

Gorbeialdeko harizti-irlek, baso zabalek, larre berdeek, hondakin historikoek eta antzinako lanen aztarnek lagunduko dute bidea egiten; Zuiatik Zigoitira joan, eta Legutio igaro ondoren, Aramaiora iritsiko gara.



Gorbeialdeatik ibiliko gara, Zuiatik Aramaiora, Zigoitia eta Legutioko bazterrak zeharkatuz. PHOT.OK

E.U. IBARRA

Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia udalerriek osatzen dute Gorbeialdeko Kuadrilla, eta horietako bost zeharkatuko ditugu ibilbide hau aukeratuz gero; bakoitzak dituen ezaugarri bereziak ezagutzeko aukera aparta izango dugu, beraz.

Hala, Arabako harizti-irletan ibiltzeko aukera izango dugu Zuia eta Urkabustaiz udalerrien arteko muga, Godamo mendia inguruan.

Iparraldeko elorri zuria, hurritza, arbustu arrunta, zuhandorra, gurbea, elorri beltza edo zumea nabarmentzen dira AP-68 errepideak erditik moztan duen baso harrigarri horretan.

Giliernatik Oletara iristeko Murgiara joko dugu, eta Zaratetik pasatu ondoren sartuko gara Zigoitiako bazterretan: Manurga, Larrinoa, Murua eta Etxaguen ondoan ibiliko gara, eta nahi izanez gero, Abadelaueta Elkarte Etnografikoak azken urteetan landu dituen garrantzi kultural

handiko ibilaldiak oinez zeharkatzeko aukera baliatu dezakegu.

Urrunagako urtegia parean dugula sartuko gara Legutioko udalerrian, eta horretan Euskal Buztingintza Museoa bisitatu daiteke, Elosu herriko Ollerietara auzotik igaroko baikara herrira iritsi aurretik. Bertatik Oletara hurbiltzeko Otxandio aldera joko dugu, Bizkaiko muga zapalduz, eta berehala sartuko gara Aramaioko lur zabaletan. Oleta eta Ibarra lotzeko A-2620 errepidea hartuko dugu, Kruzetatik.

Gilierna



32 km

A-3610

A-623

BI-3941

Oleta



10 km

A-3941

A-2620

Ibarra



> Gilierna

Larrazkueta eta Bitoriano lotzeko ibilbide bat bada, Zuiako eta Urkabustaizko udalerrien arteko lotura oinez edo bizikletaz egiteko egokia. Gilierna bide horren erdian dago. Landa izaera nabarmentzen da herrian, etxe dotoreak eta giro adeitsua. 659 metroko altitudetan egoteagatik, behatoki pribilegiatua da Gilierna Zuiako haraneko gainerako herriei begiratzeko: Murgia, Oroko santutegia... Bista ederrak gozatzeko, Santiago Apostoluaren elizaren ondoan dagoen Maxi Camararen plazara hurbildu behar da. Plazaren behealdean duela urte gutxi egindako

bolatokia dago, zaletasun handia baitago herrian kirol honekin, eta Arabako bolo txapelketan parte hartzen dute herriarrek.

San Fausto zaindariaren jaiak Pilarreko egunean egiten dira. Aspaldi, jaietan, antxume bat herriko kanpandorretik jaisten zuten kable batekin musikarien agertokiraino. Egun, ohitura hori desagertuta dago.

Aldiz, El Pilarren alboradak egiteko tradizioari eutsi diote,

659 METRORA EGONDA,
BEHATOKI PRIBILEGIATUA
DA ZUIAKO GAINERAKO
HERRIEI BEGIRATZEKO

nahiz eta, egun, bazkaldu ostean egiten dituzten. Trikitiekin lagunduta, etxez etxe joaten dira parrandazaleak eta etxe guztietan jateko eta edateko zerbeit ateratzen diete.

Giliernatik gertu, lehen aipatu dugun Larrazkueta herrira bidean, Urkabustaizko Irla-Hariztia dago. Historian zehar eraso asko jasan dituen ekosistema baten hondarra da. Bertako eremu potentziala nekazaritza eta abelazkuntzarako erabili izan da. Gainera, AP68 autobideak basoa zeharkatu eta erdibitzen du, eta parajearen edertasuna kaltetzen du. Nahiz eta harizti gehienak gaur egun desagerturik egon, esparru barruan dauden multzo txiki batzuk gorde egin dira. Horietako nabarmenetako bat, duen hedadura eta egituraketa naturalaren aldetik, Godamo mendian dagoena da. Azterlan zientifiko berrien arabera, irla-basoak garrantzitsuak dira ingurune deforestatuetan arboladi sistemei loturiko animalia espezieak kontserbatzeko. Hala, Urkabustaizko hariztiak eskualdeko babesleku bilakatu dira.



PHOT.OK

Kuadrilla: Gorbeialdea.

Udalerria: Zuia.

Biztanleak: 55 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Brontze Aroko Aislarra izeneko herrixkaren aztarnak topatu dituzte Gilierna inguruan.

> Oleta

Antzina, *Muxika-Olaeta* deitzen zitzaion, Aramaioko jaunak, Muxika deitutakoak, XIV-XV mendeetan burdinolak eraiki zituelako bertan; tartean, Aurtola burdinola sortu zuen XIV. mende amaieran. Edo Bekolea izenekoa, duela 100 urteko egitura bera kontserbatzen duena, eta interes historikoko monumentu izendatuta dagoena.

Ondare aberatsa du 582 metroko altitudetan, Otxandiorekin (Bizkaia) muga egiten duen herriak. Sortze Garbiaren eliza barrokoa dago,

OLETA DA ARAMAIOKO
AUZOEN ARTEAN
HARANETIK KANPO
KOKATUTAKO BAKARRA

esaterako; 1575. urtekoa. Erretaula nagusia churriguereskoa da, eta Arrosarioko ama birjinaren eta San Antonioren irudiak ageri dira bertan. Kanpandorrea harlanduz egina dago, eta kanpai-horman hiru arku ditu. Berezia da bertako berogailu sistema, nordikoa delako; eserleku azpian dago. Bestetik, handik metro batzuetara, Plazako Gurutzea bezala ezaguna dena dago, XVIII. mendekoa.

Oleta *El Limitado* bezala ezagutzen den ingurunetik gertu dago. 1457. urtetik Aramaio eta Otxandio 592 hektareako zabalera duen



MIRIAN BITERI



MIRIAN BITERI

lurraren jabetzagatik auzitan daude. Baserriak, enpresak, Otxandioko igerilekuak, ikastetxea eta pilotalekua daude, besteak beste, han.

Historiari erreparatuz gero, gertaera ilunak ditu Oletak. Alberto Barrondo oletarrak, esaterako, 1928. urtean gertatutako hilketa baten inguruko informazioa jaso du. Zehazki, Ildefonso Urartek bere emazte Justa Susaeta Martinez hil zuenekoa. Garai hartako komunikabideetan jasotakoaren arabera, maisua zen Urarte, eta han hasi zen eskolak ematen. Urte horretako uztailean emaztea hil eta lurperatu egin zuen.

Jose Chiqui oletarrak topatu zuen gorpua. Urtebete beranduago epaitu zuten, eta hasieran ezarritako lau urteko kartzela zigorra eta 25.000 pezetako isuna kentzea eta epaitua eroetxe batean sartzea erabaki zuten.

Kuadrilla: Gorbeialdea.

Udalerria: Aramaio.

Biztanleak: 132 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Elizako berogailu sistema nordikoa da; eserlekuen azpian dago.



PHOT.OK

Kale nagusia herriko plazara iristen da, eta bertan aurkituko ditugu eraikin garrantzitsuenak. Batetik, Bizente Goikoetxea musikari ospetsuaren etxea ikus dezakegu, plazari izena ematen diona. Aramaioarra hil zela ehun urte bete ziren 2016. urtean, eta mendeurrenaren bueltan, etxe horretako horman dagoen plaka eraberritu zuen Udalak, baita Bañera parkean jarrita dagoen eskultura ere.

San Sebastian edo Sastiña ermita ere ikus daiteke honetan. Beronen inguruan Ibarra herria sortu zen eta bere inguruan egiten ziren azokak eta jaiak. Laurehun urtez gorde dira barruan udal pisuen eta neurrien patroiak eta udaleko idazki eta agiri garrantzitsuenak.

Ibarako Udaletxea, berri, 1742 eta 1746 urteen artean harlanduz eraikitako eraikuntza sendoa da.

Bost arku ditu fatxadan, eta kanpai-horma dorrexka. Espetxe eta alondegi gisa erabili zuten garai batean, eta hain zuzen, 1872. urtean, Santa Kruz Apaiza gerrillari karlistak bertatik ihes egin zuen hil behar zuten egunaren aurreko gauean.

Josemari Velez de Mendizabalek idatzi duenez, "aparteko maina eta abileziarekin zaintzako soldadua engainatu ostean udaletxeko balkoitik kalera jauzi egin zuen gaueko iluntasunean. Orkatilan zauritua egon arren, korrika desagertu zen inguru haietatik Errotabarri aldera. Errekara sartu zen eta osin batean ia-ia hogeita lau ordu eman zituen.

MENDIZ ETA ZELAIZ
INGURATUA EGOTEAZ GAIN,
BISITATU BEHARREKO
ERAIKIN EDER UGARI DITU

Tarte luze hartan bere burutik igarotako gogoeten berri emango du urte batzuk geroago Santa Cruzek berak zenbait idazkitan". Inguruneak txango ugari egiteko eta baserri ederrak ikusteko aukera eskaintzen du. Hala, Ibarako Arraga auzoan baserri ikusgarriak daude, oso sakabanatuak. Gainera, Iturrieta sagardotegi-erretegia dago bertan. Eguzkierripa auzoan, berri, Maskariano baserria dago, haranean dagoen zaharrena –1454. urtea–.

Kuadrilla: Gorbeialdea.

Udalerria: Aramaio.

Biztanleak: 902 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: 7.300 hektarea inguruko azalerarekin, EAEko hogeitazazpi udalerri handien artean dago Aramaio.

Lautadak Mendialdeari bidea

Lautadako udalerrri ia guztiak zeharkatu eta gero, sartuko gara Arabako leku bitxienetara, Opakuako mendatea zeharkatuta; Haranean aurkituko ditugu balore ekologiko handiko paisaiak eta herri ederrak.



Opakuako mendatea zeharkatu behar da Haranetik Lautadara sartzeko. E.UGARTE

E.U. KONTRASTA

Barrundia, Donemiliaga, Zalduondo eta Agurain udalerrietako lurrak zeharkatuko ditugu bidai honetan, Arabako Lautada aldean, eta Mendialdeko leku bitxienera abiatuko gara: Harana eskualdeko Kontrasta herrira. Eskualdeko ekialdeko muturrean, Nafarroarekin bat eginez, haran eder eta ikusgarri bat aurkituko dugu. Lur hauetan pagadien eta erkameztien kolore berdeek mendikateetako haitzen

zuriarekin bat egiten dute, haraneko behealdeko laboreen gainontzeko koloreen laguntzarekin.

Marieta eta Galarreta herriak lotzen dituen errepidean ohikoa da txirrindulari asko aurkitzea, beraz, kotxez abaituz gero, kontu handiz ibili eta lasaitasunez gidatu, bidean topatuko ditugun herrien txikiez gozatuz: Hermua, Larrea, Axpuru, Gordoa, Arriola... Horietan guztietan aurkituko dugu zer ikusi eta zer egin. Gainera, tokiko Idiazabal gazta eta bestelako gutizia

gastronomikoak probatzeko ere baliatu dezakegu bidaia.

Lautadako Kuadrillako herri populatuenera iritsi eta gero, Opakuan gora egingo dugu, eta Harana udalerrian sartuko gara. Udalerriak bere baitan biltzen dituen ekologia eta paisaia aberastasuna begien bistakoa dira errepidean aurrera egin ahala. Kontrastatik aukera dago hainbat txango egiteko: Sakan arteko bidea, Santa Teodosiako ermitara bidea... edo errepidetik jarraitu eta Uribarri-Arana, Alda eta Done Bikendi Haranera hurbildu.

Marieta



16 km

A-3014 A-3012

Galarreta



25 km

A-3012 A-3018 A-3016 A-2128

Kontrasta



> Marieta

1956. urtera arte, Ganboa udalerriko parte zen Marieta, baina udalerri hura desagertu zen Uribarri-Ganboako urtegia eraiki zutenean, bere lur gehienak ur-azpian geratu baitziren. Une hartan, Larrintzar herriarekin bat egin eta Marieta-Larrintzar izenarekin Batzar Administratibo bakarra osatu zuten.

Gaur egun laurogeitik gora biztanle baditu ere, lehengo garaietan jende gehiago bizi izan zen bertan. Pascual Madozek 1848ko bere Hiztegi Geografikoan 154 pertsona bizi direla jasotzen du. Halaber, esaten du berrogeita hamar etxe zirela eta baita lehen

EUSKARA IZAN ZEN
MARIETA INGURUKO
HIZKUNTZA NAGUSIA
DUELA GUTXIRA ARTE

hezkuntzako eskola bat ere, non neskek eta mutilek batera ikasten zuten. Marietako herrigunea gaur egun baino mendebalderago zegoen kokatuta, Arlabango mendatera doan La Peña del Espinal inguruan hain zuzen. Han zegoen San Andres eliza zaharra ere, erromaniko estilokoa seguruenik; txiki geratu zenean, beste bat eraiki zuten haren gainean, Gurutze Santua izenekoa.

Hain zuzen eliza horretan jasotako bataio-agiri zahar bat aurkitu zuten 2014. urtean Gasteizko Elizbarrutiko artxiboetan. Bataio-agiriak



PHOT.OK



PHOT.OK

1481eko urtarrilaren 1eko data du eta Euskal Herriko zaharrena omen da. Agiria azal gotikoekin koadernatuta dagoen sakramentu-liburu batean zegoen, eta liburu horretan 1481 eta 1683 urteen arteko jaiotzak jasotzen dira, baita 1567 eta 1636 urteen arteko ezkontzak eta 1569 eta 1638 urte bitartean izan ziren heriotzak ere.

Euskara izan zen Marietako hizkuntza nagusia duela gutxira arte. Ladislao de Velascok 1870. urtean eginiko inkestaren arabera, Marietan eta Larrintzarren 150 euskaldun zenbatu zituen,

biztanleen %76. Pedro de Irizarrek, berriz, 1973. urteko inkestan jaso zuen Marietan, Ozetan eta Elgean zeudela bertako jatorrizko azken hiru euskal hiztunak.

Kuadrilla: Lautada.

Udalerria: Barrundia.

Biztanleak: 84 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Euskal Herriko bataio agiririk zaharrena Marietako parrokian aurkitu zuten; 1.481. urteko dokumentua da.

> Galarreta

Polemika bizia sortu zen 2014. urteko uztailean, urte luzeko utzikariaren ondorioz Galarretako elizako kanpandorra erori egin zelako. Herrialdeko ondarearen babesaren inguruan axolagabe jokatzea leporatu zioten Diputazioari garai hartan hainbat alderdi politikok eta Donemiliagako alkateak. Gaur egun, XVI. mendeko Andre Mariaren Jasokundearen eliza errenazentistaren hondarrak besterik ez daude Galarretan. Diputazioak iragan urteko ekainean iragarri zuen kanpandorrearen eta elizaren ingurua finkatu eta ondare

horren balioak azpimarratzeko obrak hasiko zituela.

Zoritzarreko istripuaz bestalde, Galarreta ezaguna da Pedro Salinas Arregi Espainiako Bigarren Errepublika garaiko alkatea eta diputatua bertan jaio zelako; eta Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* eleberriko Don Pedro pertsonaiak, Obabako amerikanoak, Salinasen bizitza duelako oinarri. Hala jaso zuen Inaxio Lopez de Arana idazle eta itzultzaileak 2004ko otsailaren 1ean, Berria egunkarian argitaratutako artikulu batean.

Lopez de Aranak idatzi zuenez, 1907an Pedro Salinasek eta Baldomero anaiak Galarreta utzi, Liverpooleko itsasontzia hartu eta Montrealera joan ziren. Batetik bestera lanean ibili eta gero, Alaskako muga ondora joan eta bertako meategietan zilarra topatu zuten anaiek. Baina Galarretara itzuli behar izan zuen Pedro Salinasek, anaia istripu batean hil eta denbora gutxira aita gaixotu zelako.

1931n aukeratu zuten amerikanoa Donemiliagako alkate. Halere, urte gutxiren buruan, Espainiako Gerra piztu

GALARRETAN JAIO ZEN
PEDRO SALINAS ARREGI
BIGARREN ERREPUBLIKAKO
DIPUTATUA

zenean, herriko hiru maisurekin batera atxilotu zuten erreketee. Maisuak Urban hil zituzten, eta Salinasek ihes egitea lortu zuen. Diputazioko lagunek emandako babesari esker salbatu zen.

Kuadrilla: Lautada.

Udalerria: Donemiliaga.

Biztanleak: 38 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: 2018an, Gernikako Urriko Azken Asteleheneko gazta onenaren saria Galarretako Azkarra gaztandegiak eraman zuen.



PHOT. OK

> Kontrasta



E.UGARTE

1 256. urtean hiribildu izendatu zuen Alfonso X. erregeak Kontrasta, Nafarroako muga indartzeko asmoarekin. Gasteizko Forua eman zion, gainera, eta horri esker Kontrastako biztanleek ez zuten zergarik ordaindu behar. Harana bailara eta Nafarroako Ameskoa eskualdeen arteko zubia da Kontrasta.

Historiako garai desberdinetan, Nafarroako eta Gaztelako erresumen menpe egon zen herria, eta bandokideen liskarretan Lazkaoko jauntxoek dorretxea eraiki zuten bertan. Gipuzkoako oinaztarren talde boteretsuaren parte ziren lazkaotarrak, eta jauntxo horien gehiegikerien eta abusuen kontra borrokatzeko sortu zen hain zuzen Arabako Kofradia.

Azkenik, 1479. urtean, Arabako Kofradiako partaideek Kontrastako lazkaotarren dorretxea erasotu, Lazkaoko jauntxoa akatu eta dorretxeari

su eman zioten. XVIII. mendean, berriz, dorretxearen gainean jauregi bat eraiki nahi izan zuten lazkaotarren oinordekoek, baina azkenean eraikina abandonatu eta suntsitu zen.

Harresituta dago herria, eta ondare arkitektoniko ederra gorde du. Hala, iparraldean, dorretxe bat dago eta hegoaldean, berriz, gaztelu baten gainean eraikitako Deikundeko Andre Mariaren eliza-gotorlekua. Gainera, harresiaren parte handi bat gorde da, nahiz eta herriko etxeak horretara atxiki dituzten. Herrira sartzeko bi arku eder daude.

Kontrastatik gertu, Elizmendiko basiliza dago. XVI. mendean zazpi basiliza izan

HARANA BAILARA ETA
NAFARROAKO AMESKOA
ESKUALDEEN ARTEKO
ZUBIA DA KONTRASTA

zituen herriak, baina gaur egun nekropoli erromatar baten hilerriekin partzialki eraikitako tenplu bitxi honek bakarrik dirau. Elizmendi tenplu erromanikoa izan zen baina egungo eraikuntza batez ere Erdi Aro ostekoa da. Baselizaren ondoan, hegoaldean, Erdi Aroko hilobi kristauen gorpuzkiak daude.

Ingurune menditsua da eta baso ederraz inguratuta dago, eta ibilbide ugari egin daitezke bertatik: Bide Sakanen Ibilbidea edo Harana Bailarako Ibilbidea, besteak beste.

Kuadrilla: Mendialdea.

Udalerrria: Harana.

Biztanleak: 59 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Agurain eta Kontrasta artean Lamikela izeneko harkaitz azpiko aterpe bat dago; lamien babesa omen da.

Araba, motor gainean

Motozaleen turismo gosea asetzeko bihurgunez, naturaz eta kultur ondarez beteriko lau ibilbide argitaratu berri ditu Arabako Foru Aldundiak; horietako bi zirkularrak dira eta beste biak linealak.

ERREDAKZIOA

Argitalpen berria egin du Arabako Foru Aldundiak motorrean bidaiatzeaz gozatzen duten pertsonak herrialdera erakartzeko. Turismoko Nazioarteko Azokan (FITUR) aurkeztu zuten, eta dagoeneko turismo bulegoetan eta Europako moto klubetan eskuragarri dago. Material berriak lau ibilbide proposatzen ditu, "bihurgunez, paisaia zoragarritz eta lurraldeko natura eta ondare erakargarri nagusiz beteak".

Ibilbide horiek "motozaleek eta motozaleentzat" eginak dira, eta batez ere bigarren mailako errepideetatik egitekoak, trafiko zirkulazio txikia, zoru ona eta ikuspegi paregabeak baitituzte. *Hegoalderantz presarik gabe, Iparralderantz presarik gabe, Haranak, Lautada eta Mendialdea eta Gazteluak eta*

ardoa dira denen artean ia 700 kilometro eta bihurgune asko dituzten ibilbide horien izenak.

56 orriko argitalpenak lau ibilbide horietako mapa bana jasotzen du, eta fitxa bat non motozaleek igaroko dituzten herri nagusi eta hartu beharreko errepideak bilduta. Gainera, motozaleentzat gidatzeko aholkuak ere ematen dituzte gida berrian.

Eginotik mugara

Hegoalderantz presarik gabe Eginon hasi eta herrialdeak Burgosekin muga egiten duen lekuan bukatzen da, Miranda Ebro parean, Fontecha herriaren inguruetan. 104 kilometrotan intereseko lekuak igarotzen dira: Aizkorri-Aratz parke naturala, Uribarri Ganboako urtegia eta barneko hondartzak, Gasteiz eta haren leku xarmagarri guztiak (Eratzun Berdea, Erdi Aroko alde zaharra, Santa Maria

katedrala, jauregiak ...) eta Añanako Gatz Harana.

Arabako Errioxatik Aiaraldera

Iparralderantz presarik gabe ibilbideak 152 kilometro ditu, Arabako hegoaldean hasi eta Laudion amaitzen da, eta bide horretan, Arabako Errioxa ezagutu daiteke, Herrera mendateko bihurgunez eta paisaiez gozatu, Urizaharreko hiribildu harresiduna miretsi, eta Aiaran atsedean hartu. Lapuebla de Labarcatik ateratzen da ibilbidea; Eltziego, eta Guardia zeharkatu ostean sartuko da Arabako Mendialdean motozalea, eta hortik Gasteizera abiatuko da; Murgia eta Amurrio igaro ondoren, Laudion amaitzen da.

Gasteiztik zirkularra

Haranak, Lautada eta Mendialdea ibilbideetatik luzeena da, 261 kilometrokoa. Gasteizen hasi eta bukatzen da,



Zalduondo. PHOT.OK



Nerbioiko ur-jauzia. PHOT.OK



Zabalateko gaztelua. PHOT.OK



Motozaleentzat lau ibilbide biltzen dituen argitalpena egin du Arabako Diputazioak. AFA

eta leku hauetatik igarotzen da: Santa Katalinako lorategi botanikoa, Gatz Harana, Varonatarren dorretxea, Nerbioiko ur-jauzia, Kexaa, Audio, Gorbeia eta Izki parke naturalak, Zadorrako urtegiak, Zalduondo, Agurain, Opakua, Done Bikendi Harana, Maeztu eta buelta Gasteizera.

Trebiñun barrena Errioxara

Azken ibilbidea, *Gazteluak eta ardoa*, ere ibilbide zirkularra da, Arabako hiriburua abiapuntu eta helmuga du, eta 181 kilometrokoa da. Ibilbide bitxi hau Gasteizko Mendietatik sartzen da Trebiñura, eta bertako errepideetatik abiatzen da Berantevillara, Zanbranako Ozioko eta Zabalateko gazteluetara, Jugalezko bidezidorra eta Herrerias ur-jauzia ezagutzera, eta ondoren, Urizaharretik, Arabako Errioxako upeltegietara eta mahastietara heltzen da:

Samaniego, Eltziego, Lapuebla de Labarca, Guardia, Elvillar, Oion, Moreda eta Labraza zeharkatzen ditu, eta Bernedoko mendatetik itzultzen da Gasteiza, Lagran igarota eta Trebiñuko Baxauri, Albaina eta Argote herriak atzean utzita. Bide horretan Armentia geldiuene egokia da.

Lehenengo bi ibilbideak linealak dira, eta pentsatuta daude herrialdea bidaia luzea eginez zeharkatzeko eta gauak bertan pasatzeko. Azkeneko bi ibilbideak, aldiz, zirkularrak dira eta Araba denbora gehiago igarotzeko tokia bezala aukeratzen duten motozaleentzat dira. ■■■



AGENDA

Uztailaren 26tik abuztuaren 1era

Euskararen agenda

MUSIKA

LAUDIO Izate Faltsuak

Zen eta Iratzar taldeekin batera.
Ostirala 26, 23:00etan, Aretako jaietan.

ARAMAIO Ertzak

Los Clayton taldearekin batera.
Larunbata 27, 19:30ean, Uribarrin.

BERANTEVILLA Aldakan

Larunbata 27, 20:00etan, herriko plazan.

LANTARON Ze Esatek

Raust eta Def con Dos taldeekin batera.
Larunbata 27, 22:30ean, kiroldegian.

DANTZA

LAUDIO Dantza poteoa

Untzeta dantza taldearekin batera antolatutako saioa.
Ostirala 26, 20:30ean, Aretako jaietan.

HAURRAK

BASTIDA 'Gora Kasete!'

Eidabe taldearen eskutik, kale antzerkia.
Larunbata 27, 20:30ean, plazan.

AGURAIN 'Leo Da Vinci'

Zinema estreinaldia, euskaraz.
Zinearaba zikloaren barruan.
Larunbata 27, 22:00etan, San Juan plazan.



W.DRUMMOND/ JON IRAUNDEGI

ZIGOITIA Eguzki Jaia

Uztailako azkeneko asteburuan Eguzki Jaia ospatuko dute Zigoitian, musika, antzerkia, gastronomia edota kirol jarduerak uztartuta hilaren 26, 27 eta 28an. Willis Drummond, dantza plaza, Organik antzerki taldea edota esku pilota ez dira faltako Eguzki Mari protagonista duen jaian.
Hilaren 26, 27 eta 28an.

ARTZINIEGA Komiki txikiak

Komikiak deskubritzeko saioa, haurrentzat.
Asteazkena 31, 12:00etan, liburutegian.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Bertso afaria

Manex Agirre eta Xabi Igoa bertsolariekin.
Ostirala 26, 21:00etan, Uribarri auzoan.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Zineleku

Zinelekuren azken erakusketa eta amaierako jaia egingo dute. Ikasleen eta artisten elkarlanaren ondorioz sortutako lan esperimental eta diziplinarteko proiektuak aurkeztuko dituzte.
Ostirala 26, 20:00etan, Falerina lorategian.

Jimmyjazz
gasteiz

UZTAILA

Ar. 30

PROPAGANDHI
+ ADRENALIZED + LA ARMADA

IRAILA / URRIA / AZAROA

THE MOVEMENT + BUSTER SHUFFLE // ÄCHTUNG BABIES - U2 TRIBÜTOA
SAUROM "UN VIAJE ÚNICO" // ESKORZO // THE CHRIS SLADE TIMELINE
ARETHA SOUL DIVAS & THE SILVERBACKS // EL RENO RENARDO
ROCKA FAMILIAN, RAMONES EZAGUTUZ // MORGAN
FRANK CARTER & THE RATTLESNAKES // LOS BARONES
ALEX CLAVERO // ILEGALES // EL DROGAS

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

JAIETAN HERRI MUGIMENDUAREKIN ENTXOSNATU!

2. OSTIRALA

20:30 Andia Mari Zurrik - Txosnagunera Kalejira

21:30 Inaugurazio ekitaldia eta bazterkaria

22:00 kontzertuak

**ALDAKAN BELTZ
ERATU
SU TA GAR
DJ PEREZ TROIKA SOBIET**

3. ARABATA

entxosnata eguna

10:00 IRRIEN LAGUNAK [ikusketarako]

12:00 Bertso saioa [entxosnata karpel]

13:00 Herri kirolak [txosnagunera zehar]

14:30 Bazkari feministak [entxosnata karpel]

17:00 Dantza Plazan [entxosnata karpel]
Umeen txakalak [jolasak, girokaria, magoa,
puzkak] [gare karpel]

22:00 kontzertuak

**GARILAK 26
DJ MALANDRO**

4. IGANDEA

22:00 kontzertuak

**TARA
TRIKOMA
SKABIDEAN & THE
BLACK BIRDS
AIARALDEKO SOUND
SYSTEM**



5. ASTERENA

Ekitaldiaren eguna

15:00 Herri bazkaria [jardoketa]

21:30 Ekitaldiaren eguneko ekitaldia [jesenatokia]

22:00 kontzertuak

**DUPLA
ZEA MAYS
DJ ELEPUNTO**

6. ASTARTEA

Egun jainakoa

13:30 Marionetadak [jardoketa]

15:00 Bazkari feministak [entxosnata karpel]
eta ondorentzailerak

16:00 Bazkariak musikatuak [entxosnata karpel]

23:30 Egun feministakoa ekitaldia [jesenatokia]

22:00 kontzertuak

**NERABE
TRIBADE
THE BABOON SHOW
DJ KOMANDO KLITORIX**

7. ASTEZKENA

gare eguna

14:30 Gaste bazkaria [entxosnata karpel]

23:30 Gaste eguneko ekitaldia [jesenatokia]

22:00 kontzertuak

**ANITA PARKER
ESNE BELTZA
DJ GIMLEE**

8. ASTEGUNA

kalte eguna

14:30 Kalte bazkaria [entxosnata karpel]

16:30 Bertso saioa

17:30 Kanikan saioa [kalte abertzaleak basoa]

20:00 Kontzertuak [kalte abertzaleak basoa]

23:30 Kalte eguneko ekitaldia [jesenatokia]

22:00 kontzertuak

**NAFARROA 1512
KOP
KALEKO URDANGAK
ELKARR KOLEKTIBOA**

9. OSTIRALA

22:00 kontzertuak

**GORPUZKINGZ
MAFALDA
DJ IRREGULAR**

**ARABARA ETORTZEN BAZARA,
MODU AZKARREAN ZEHARKA DEZAKEZU LURRALDEA...**

BAINA PRESARIK EZ BADUZU...

**¿NOLATAN EZ ZARA PIXKA BAT DESBIDERATZEN, BIHURGUNE
BATZUK GEHIAGO HARTZEKO ETA GU HOBETO EZAGUTZEKO?**

★★★★★
IBILBIDEAK MOTORREAN
ARABAN BARNA



**alava
turismo.
eus**

araba álava
foru alundia diputación foral